

ERROLDATZEA

Udalean izena ematea da erroldatzea. Etorri berria bazara (legezko egoeran egon ala ez) eta Udaleko erroldan izena ematen baduzu, herriko bizilagun bihurtuko zara eta hainbat eskubide lortuko dituzu. Derrigorrezkoa da ondorengoetarako sarbidea izateko: osasun-arreta, gizarte-zerbitzuak eta hezkuntza.

** Erroldatzea pertsonala da; beraz, ezin du inork beste pertsona bat bidali bere ordeiz izena eman dezan.*

Honako dokumentuak aurkeztu behar dituzu:

- **Nortasuna egiaztatzeko agiria:**
 - Jatorrizko nortasun agiria, pasaportea edo AIZ (indarrean).
- **Bizilekua egiaztatzeko agiriak:**
 - Jabetza-agiria: salerosketa-eskritura edo jabetza egiaztatzen duen agiria.
 - Etxebizitzaren alokairu-kontratua indarrean eta erroldatuko direnen izenean, eta kontratua Eusko Jaurlaritzan erregistratuta dagoela ziurtatzen duen agiria.
- **Adin txikikoen kasuan:**
 - Familia-liburua.
 - Guraso-ahala egikaritzen duten guraso guztien baimena edo baimen judiziala.

Edozein argibidetarako jarri harremanetan Udal erregistroarekin.

REGISTERING AT THE TOWN HALL

'Empadronamiento' is registering yourself at the local town hall. If you have just moved here (regardless of whether this is a regular situation or not) and you register on the municipal register, you will become a resident of the municipality and be entitled to various rights, such as access to health care, social services and education.

** Registration is personal, so you cannot send someone else to register on your behalf.*

You will need to provide the following documentation:

- **Proof of identity:**
 - Original copy of a valid national ID card, passport or foreigners' ID number/card (NIE).
- **Certificate of residence:**
 - Document of ownership: deed of sale or document proving ownership of a property.
 - Rental contract for your current home in your name, and certificate of registration of the contract in the Basque Government's register.
- **In the case of minors:**
 - Family record book.
 - Judicial permission or authorisation of all parents with parental custody.

If you have any queries, please contact the Municipal Registry.

Udal erregistroa / Municipal Registry	
 Joxe Martin Sagardia Plaza	 astel. / mon. - ostir. / fri.: 9:00-14:00
 943 371 951	 www.usurbil.eus

Udaleko Aniztasun teknikariarekin hitzordua hartu daiteke.

You can make an appointment to see the town council's Diversity Officer.

HARRERA ZERBITZUA

Harrera zerbitzua atzeritik etorritako eta baztertze arriskuan dagoen edonori zabalik dagoen zerbitzua da: udaleko Aniztasun sailak eskaintzen du, harrera protokoloari jarraituz.

Protokolo horren helburua Usurbilen finkatzen diren pertsonen harrera eraginkorra eta humanoa eskaintzea da, eskubide osoko bizilagun bihurtzeko prozesuan lagunduz. Horretarako, hainbat eragile instituzional eta sozialen arteko elkarlana gauzatu da.

Hala, heldu berriei zein beharra duten guztiei harrera egiten zaie, herrian kokatu, herriko baliabideak eta zerbitzuak aurkeztu, eta hainbat tramite egiten eta bideratzen laguntzen zaie.

Zerbitzuan artatua izateko ez da erroldatua egon behar: udaleko erregistroan hitzordua eska dezakezu.

Harrera zerbitzutik honako hauek eskainiko dizkizugu:

- Usurbil udalerriko baliabideei buruzko informazioa eta baliabide horiek eskuratzeko moduari buruz.
- Atzerriartasunaren eta nazionalitatea izapidetzearen inguruko aholkularitza.
- Zure eskaera eta beharrak entzun eta dagokion zerbitzura bideratuko zaitugu.

RECEPTION/ WELCOME SERVICE

From May 2023, there will be a service open to anyone who comes from abroad and is at risk of exclusion, with the aim of implementing the reception/welcome protocol that has just been set up by the town council's Diversity Department.

The aim of this service is to assist newcomers and anyone else who needs it, help them to find their way around the municipality, introduce them to the resources and services available in the municipality, support them with the different procedures and guide them through them.

You do not have to be a registered resident to use the service. You can make an appointment with the town council's registry office.

The reception/welcome service provides the following:

- Information on the resources available in the municipality of Usurbil and how to access them.
- Advice on immigration matters and procedures for applying for nationality.
- We will listen to your requests and needs and refer you to the appropriate service.

Harrera zerbitzua Reception/welcome service



Belmonte, 8



osteguna / thursday: 11:00 - 13:00



943 377 112



www.usurbil.eus

Aurretik hitzordua hartu behar da Udaleko Erregistroan.
By prior appointment at the town hall records office.